



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

33. buletina (2006ko irailaren 1ean argitaratua)

- **Laburpena:**

1. **Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko hainbat lanpostu betetzeko eskaintza publikorako deialdia.**
2. **1. eta 2. HE egiaztatzeko proben aparteko deialdirako aurreikusitako egunak.**
3. **Aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketan sartzea udalaren web-orriaren bidez. Berrikuntza: kontratu simulatuaren ezaugarrien arabera norberaren egoera ezagutzeko aukera.**

- **Zehaztapenak:**

1. **Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko hainbat lanpostu betetzeko eskaintza publikorako deialdia.**

2006ko uztailaren 14ko ALHAOn (79 zk.) argitaratu ziren Gasteizko Udaleko Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuko hainbat lanpostu betetzeko eskaintza publikoaren deialdia eta oinarriak. Deialdiaren iragarkia 2006ko abuztuaren 31n argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta hutsik dauden honako lanpostuei dagokie:

Txanda irekia:

Inspektore-orde lanpostu 1 (3. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun data gabea). B taldea. Titulazioa: Arkitekto Teknikoa edo Ingeniari Teknikoa. Praktikaldia amaitutakoan BTP edo C gidabaimena.

15 **suhiltzaile/espezialista** lanpostu (2. hizkuntza eskakizuna; 4 lanpostuk derrigortasun data igaroa, 2002/05/02, eta 11 derrigortasun data gabeak). D taldea. Eskola-graduatu edo baliokidea. B gidabaimena. Praktikaldia amaitutakoan C gidabaimena.

Barne sustapena:

Inspektore-orde lanpostu 1 (3. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun data gabea). B taldea. Titulazioa: Arkitekto Teknikoa edo Ingeniari Teknikoa. Praktikaldia amaitutakoan BTP edo C gidabaimena.

Sarjentu lanpostu 1 (2. hizkuntza eskakizuna; derrigortasun data gabea). C taldea. Titulazioa: goi-mailako batxilergoa edo baliokidea. Praktikaldia amaitutakoan C gidabaimena.

2 **kabo** lanpostu (2. hizkuntza eskakizuna; batek derrigortasun data igaroa, 2002/05/02, eta bestea derrigortasun data gabea). D taldea. Eskola-graduatu edo baliokidea. Praktikaldia amaitutakoan C gidabaimena.

Eskabide orria eta **deialdiaren oinarriak** gizarte etxeetako Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan, Espainia plazako bulego nagusian nahiz Europa Jauregian eskuratu ahal izango dira, lanegunetan, 9:30etik 14:00etara nahiz 16:30etik 19:30era bitartean.

Eskabideak adierazitako leku eta ordutegietan aurkeztu beharko dira, **2006ko irailaren 1etik 20ra bitartean (biak barne)**.

ALHAOren web orria: www.alava.net/es/nbotha.html

2. 1. eta 2. HE egiaztatzeko proben aparteko deialdirako aurreikusitako egunak.

Behin eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, 2006ko maiatzaren 16an, aldi baterako kontratazio zerrendetako kideei zuzendutako 1. eta 2. HE egiaztatzeko proben aparteko deialdian onartutako pertsonen zerrenda argitaratu zen iragarki-taulan eta udalaren web orrian.

Probak egingo diren lekua, eguna eta ordua irailaren 15ean jakinaraziko da, Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, 010 telefonoan eta www.vitoria-gasteiz.org orrian. Dena den, jakinarazten da Mendizorrotzeko kiroldegian egitea aurreikusita dagoela, 2006ko urriaren 3an, 9:30ean, 2. hizkuntz eskakizunari dagokiona, eta 15:00etan, 1.ari dagokiona.

3. Aldi baterako kontratazio zerrenden kudeaketan sartzea udalaren web-orriaren bidez. Berrikuntza: kontratu simulatuaren ezaugarrien arabera norberaren egoera ezagutzeko aukera.

Aurreko buletinetan jakinarazi denez, **udala on line** herritarrei beren kontsulta eta kudeaketak berehalakoan eta modu erosoan egiteko aukera ematen dien zerbitzua da. 2006ko urtarrilaren erdialdetik, eta identifikazio digitaleko txartela baliatua, **Aldi Baterako Kontratazio Zerrendaren inguruko zuzemenak** burutu daitezke www.vitoria-gasteiz.org helbidean (ezaugarriak eta prozedura 30. buletinean kontsultatu).

Hasiera batean sistemak aukera eman du **jakiteko** norbera zein zerrendetako kide den, **identifikazio datuetan aldaketa egiteko** baita **parte hartzeko parametroetan eta aldi baterako alta edo baja eskatzeko** ere.

Zerrendaren batean **hasierako egoeraren** formalizazioa **salbu**, zeinaren kudeaketa Funtzio Publikoaren Sailaren bulegoetara joanda burutuko baita eta **amaierarik gabeko kontratua** denean, zeinen kudeaketa bertaratua edo telefonoz egingo baita, bestelakoak norberak egin ditzake.

Berriki aukera bat aktibatu da erabiltzaileari zerrendan duen **egoera** erlatiboa ezagutzea ahalbidetzen diona **kontratu simulatu** baten ezaugarrien arabera.

Aldi baterako kontratazio zerrendetako kideei gogorarazten zaie Funtzio Publikoaren Sailean –San Prudentzio kalea 34, 3. sol.– **eska dezaketela txartela, 8:30etik 14:00etara bitartean** (aldean eraman nortasun-agiria).

- Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)
- Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>

- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**